



## ERANTZUN ITXIKO APLIKAZIO INTERAKTIBOEN SORTZAILEA GENERADOR DE APLICACIONES INTERACTIVAS DE RESPUESTA CERRADA

21

### DEFINIZIOA Zer da?

Erantzun itxiko aplikazio interaktiboen sortzailea ikasleentzako ikaskuntza-jarduerak modu automatikoan egiten dituen programa edo web-zerbitzua da. Jarduera horiek egiteko, egileak testuak, irudiak, audioak, soinuak eta bideoak txertatzen ditu. Multimedia egile-sistemak ere baderitze.

Sortzaile horien artean, lau adibide nabarmentzen dira, eraginkorrak direlako eta asko erabiltzen direlako:

**Jclic.** Askotariko jarduerak egiteko aukera ematen du, hala nola buru-hausgarriak, elkarketak, testu-arietak, hitz gurutzatuak. Jarduerak proiektu batean bil daitezke, ikasleei hainbat jarduera segida batean ordenatuta aurkezteko. Jclic-en aurrekoa Clic izenekoa da. JClic-ek hainbat osagai du: JClic (programa nagusia; jarduerak bistaratu eta exekutatzeko balio du), JClicAuthor (JClic proiektuak sortzeko programa), JClic reports (JClic proiektuetako jarduerak egindakoan ikasleek lortutako emaitzak bilduko dituen datu-basea kudeatzea ahalbidetzen duen modulua). (Iturria: ZonaClic <http://clic.xtec.cat/es>)

**Hot Potatoes** (ingelesez). Hezkuntza-jarduerak egiteko doan behera kargatzen den programa. Besteak beste, elkarketak, testu-arietak eta gurutzegramak egitea ahalbidetzen du.

**Malted.** Teknologikoki hornituta dauden ikasgeletako ikasleek ikaskuntza-praktika gisa erabiliko dituzten elkarrekintzako eta multimedia unitate didaktikoak sortu eta exekutatzeko egile-sistema. Tresna hori hizkuntzak irakasteko garatu da bereziki; hala ere, eskola-curriculumeko beste hainbat gaitara ere zabal liteke. (Iturria:

<http://recursostic.educacion.es/malted/web/presentacion/QMalted.htm>)

**FACIL** (Informatikako eta hizkuntzako jarduera konbinatuen faktoria). Elkarrekintzazko ariketak eta paperezko formatukoak (jokoak, irakurketa eta idazketa lantzeko jarduerak, etab.) sortzeko sistema automatikoa.

**DEFINICIÓN**  
¿Qué es?

Un generador de aplicaciones interactivas de respuesta cerrada es un programa o servicio web que elabora, de forma automática, actividades de aprendizaje destinadas a los alumnos. Para la construcción de estas actividades, el autor incorpora textos, imágenes, audios, sonidos y vídeos. También se denominan sistemas de autor multimedia.

Entre estos generadores, se destacan cuatro ejemplos por su probada eficacia y su uso generalizado:

**Jclic.** Permite desarrollar actividades de tipo: rompecabezas, asociaciones, ejercicios de texto, palabras cruzadas . Las actividades se pueden empaquetar en un proyecto, que permite presentar a los alumnos varias actividades ordenadas en una secuencia. s. El antecesor del Jclic es el Clic. El Jclic dispone de diferentes componentes: Jclic (programa principal que sirve para visualizar y ejecutar las actividades) JclicAuthor (programa de creación de proyectos Jclic), Jclic reports (módulo que permite gestionar una base de datos en la que se recopilarán los resultados obtenidos por los alumnos al realizar las actividades de los proyectos Jclic). (Fuente: ZonaClic <http://clic.xtec.cat/es>)

**Hot Potatoes** (en inglés). Programa de descarga gratuita para realizar actividades educativas: asociaciones, ejercicios de texto, crucigramas, entre otros.

**Malted.** Sistema de autor para la creación y ejecución de unidades didácticas multimedia e interactivas para ser utilizadas por el alumnado como prácticas de aprendizaje en aulas dotadas tecnológicamente. Esta herramienta ha sido desarrollada en particular para la enseñanza de idiomas, si bien su uso se puede extender a otras materias del currículo escolar. (Fuente: <http://recursostic.educacion.es/malted/web/presentacion/QMalted.htm>)

**FACIL** (Factoría de actividades combinadas de Informática y Lenguaje). Sistema automático de generación de ejercicios interactivos y en formato papel (juegos, actividades de lectoescritura...)

**BALIABIDEAREN ERABILERA**

Beste irakasle batzuek egindako erantzun itxiko aplikazio interaktiboak erabil daitezke (1), edo nork bereak sortu (2).

**Nola erabiltzen da?**

1. Sortzaile gehienek sortu diren jarduerak biltzen dituzten webguneak dituzte (Ikus gomendatutako webguneak). Ikasleekin erabiltzeko hainbat aukera dago:
  - Javaren applets-en bitartez linean exekuta daitezkeen aplikazioak. Horretarako Java Makina Birtuala instalatuta eduki behar da. Horien artean, Jclíc jarduerak exekuzio moduan eta Malted jarduerak ditugu.
  - Html lengoaia erabiltzen duten web-aplikazioak: web-orri gisa bistaratzen dira. Horien artean, Hotpotatoes eta FACIL sistemaz egindako web-jarduerak ditugu.
  - Lokalean behera kargatu eta programa egokia erabiliz ireki behar diren aplikazioak: aplikazio horiek bistaratzeko, erreferentziazko programa eduki behar da instalatuta (MsPowerPoint, MsWord, Clic3.0)/
2. Jarduera propioak sortzen hasteko aurrez aurreko eta urrutiko ikastaroak, tutorialak eta erabiltzeko gidak daude, era askotakoak. Hasieran, agian denbora luzea beharko da, baina trebatu ahala lana izugarri azkartzen da.

**UTILIZACIÓN RECURSO  
¿Cómo se usa?**

- Pueden utilizarse aplicaciones interactivas de respuesta cerrada creadas por otros docentes (1) o bien crear las propias (2).
1. La mayoría de los generadores disponen de sitios web donde se recopilan las actividades generadas (Ver sitios recomendados). Existen diferentes posibilidades para su uso con los alumnos:
    - Aplicaciones que pueden ser ejecutadas en línea a través de applets de Java. Es necesario tener instalada la Máquina Virtual Java. Es el caso de las actividades Jclíc en modo ejecución y Malted.
    - Aplicaciones web que utilizan lenguaje html: Se visualizan como una página web. Es el caso de actividades Hotpotatoes y actividades web elaboradas con FACIL.
    - Aplicaciones que hay que descargar en local y abrir con el programa adecuado: Para visualizarlas, hay que tener instalado el programa de referencia (MsPowerPoint, MsWord, Clic3.0)/
  2. Para iniciarse en la creación de actividades propias existen gran variedad de cursos presenciales y a distancia tutoriales y guías para su uso. Al principio puede llevar mucho tiempo, pero con la práctica se agiliza mucho la tarea.

**IKASGELARAKO  
GOMENDIOAK**

Jarduerak sortzeko, bertan txertatuko diren edukiak prestatu behar dira aldez aurretik (testuak, irudiak, audioak, bideoak), beharrezkoak diren programak erabiliz (testu-prozesadorea; irudiak, soinuak edo bideoak editatzeko programak).

Erantzun itxiko jarduera interaktiboetara egiten zaien kritiketako bat ikasleak egindako lana ebaluatzeko zailtasuna da. Jclícen kasuan, Jclíc reports moduluak jarraipen zehatza egiteko aukera ematen du; baina horretarako, jarduerak ez dira linean erabili behar, "behera karga" moduan baizik. Jclíc Reports eta jarduerak eskola-zerbitzari batean behar bezala instalatzeko jarraibideak Zona Clic guneko materialetan agertzen da. Horrez gain, Jclíc jarduerari emango zaien erabilerari buruzko hausnarketa egin eta erabakiak hartu behar dira eskolan.

Ikasleek erantzun itxiko aplikazio interaktiboak sortzea oraindik ere ez da asko joratu, baina ahalmen pedagogiko handia du. Jarduerak egiten dituztenean, ikasleek jolas-testuinguru batean baliatzen dituzte beren ezagupenak, eta hori oso motibagarria da.

**RECOMENDACIONES  
PARA EL AULA**

La creación de actividades supone la preparación previa de los contenidos que se incluirán (textos, imágenes, audios, vídeos) utilizando los programas necesarios (procesador de texto, programas para la edición de imágenes, sonidos o vídeos)

Una de las críticas que se plantea a las actividades interactivas de respuesta cerrada es la dificultad de evaluar el trabajo desarrollado por el alumno. En el caso del Jclíc, el módulo Jclíc reports permite un seguimiento exhaustivo, pero para ello las actividades no deben utilizarse en línea sino en modo "descarga". La instalación adecuada del Jclíc Reports y de las actividades en un servidor escolar está documentada en los materiales de la Zona Clic, pero además implica la necesaria reflexión y toma de decisiones a nivel de la escuela sobre el modo en que se utilizarán las actividades Jclíc.

La creación de aplicaciones interactivas de respuesta cerrada por parte de los alumnos es un campo poco explorado pero dotado de una gran potencialidad pedagógica. En la creación de actividades los alumnos ponen en juego sus conocimientos en un contexto lúdico con gran potencial para la motivación.

**GOMENDATUTAKO  
GUNEAK**  
Non aurki dezaket?

**JClic. Behera kargatu eta instalatzea**

<http://clic.xtec.cat/es/jclic/download.htm>

Behera kargatzeko artxiboez gain, egin beharreko urratsak zehatz-mehatz azalduta agertzen dira.

**Hot Potatoes (ingelesez)**

<http://hotpot.uvic.ca/>

Sortzailea behera kargatzeko artxiboetarako loturak ditu.

**HotPotatoesen tutorialak gaztelaniaz**

[http://platea.pntic.mec.es/~iali/CN/Hot\\_Potatoes/intro.htm](http://platea.pntic.mec.es/~iali/CN/Hot_Potatoes/intro.htm)

Bertsioen, sortutako materialen eta abarren tutorialerako loturak.

**Malted**

[http://malted.cnice.mec.es/descargas/index\\_php.php](http://malted.cnice.mec.es/descargas/index_php.php)

Behera kargatzeko orria. Tutorialerako lotuneak biltzen ditu.

**FACIL (Informatikako eta hizkuntzako jarduera konbinatuen faktoria) (katalanez)**

<http://www.xtec.cat/dnee/facil/>

Behera kargatzeko artxiboaren bertsiorik berriena biltzen du.

**Erantzun itxiko aplikazio interaktiboaren sortzailea**

**JClic**

<http://clic.xtec.cat/es/act/index.htm>

Jarduera-bilatzailean hainbat aukera egin daiteke: arloa, hizkuntza (gaztelania, euskara, etab.), hezkuntza-maila, etab.

**HotPotatoes jarduerak (EducaMadrid)**

<http://www.educa.madrid.org/portal/web/educamadrid/hotpotatoes>

HotPotatoes erabiliz irakasleek eta heziketaren eremuko beste profesional batzuek landutako jarduera

sorta.

### SITIOS RECOMENDADOS

¿Dónde lo  
encuentro?

#### **JClic. Descarga e instalación**

<http://clic.xtec.cat/es/jclic/download.htm>

Además de los archivos de descarga se incluyen comentarios pormenorizados sobre los pasos a desarrollar.

#### **HotPotatoes (en inglés)**

<http://hotpot.uvic.ca/>

Incluye los enlaces a los archivos de descarga del generador.

#### **Tutoriales de HotPotatoes en español**

[http://platea.pntic.mec.es/~iali/CN/Hot\\_Potatoes/intro.htm](http://platea.pntic.mec.es/~iali/CN/Hot_Potatoes/intro.htm)

Enlaces a tutoriales de las distintas versiones, materiales creados...

#### **Malted**

[http://malted.cnice.mec.es/descargas/index\\_php.php](http://malted.cnice.mec.es/descargas/index_php.php)

Página de descarga. Incluye enlaces a tutoriales.

#### **FACIL (Factoría de actividades combinadas de Informática y Lenguaje) (en catalán)**

<http://www.xtec.cat/dnee/facil/>

Contiene el archivo de descarga, en su versión más actual.

#### **Aplicaciones interactivas de respuesta cerrada**

##### **JClic**

<http://clic.xtec.cat/es/act/index.htm>

En el buscador de actividades se puede seleccionar área, idioma (español, euskara...), nivel educativo...

#### **Actividades HotPotatoes (EducaMadrid)**



<http://www.educa.madrid.org/portal/web/educamadrid/hotpotatoes>

Selección de actividades elaboradas por docentes y otros profesionales de ámbito formativo, haciendo uso del HotPotatoes.

